

166 lagunek hartu dute parte Graduetao lehenengo Onarpen proba ekitaldian Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

2017/03/16

Pasa den larunbatean, hilaren 11n, egin zituzten Onarpen probak 2017-2018 ikasturtean Graduak ikasi ahal izateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Proba horien lehenengo deialdi honetan 166 ikasle gai hartu zuten parte; 118 lagunek Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetao eta beste 48ak Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduetao. **Hurrengo Onarpen probak egingo dira apirilaren 26an eta ekainaren 10ean.**

Onarpen proban parte hartu zuten ikasle gaiak bakarka zein taldeko ariketa eta gogoeta egin behar izan zituzten, beti ere, **giro onean eta gerora fakultatean ikasiko duten metodologia kolaboratiboa erabilia**. Ekitaldia goizeko 10:00etan hasi zen eta bi ordu inguruko iraupena izan zuen.

Onarpen probaren helburu nagusiak honako hauek dira: **bertatik bertara ezagutzea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen lan egiteko erak**, bizitzea lanbidearekin lotura duen esperientzia bat, ikasle-gaien artean lehen kontaktua era positiboan bizitzea, ikasle gai bakoitzaren inguruko informazioa biltzea eta behatzea Graduetao ikasketetarako oinarri diren kompetentzien behatzea.

Onarpen proba egunean egindako **argazki sorta**:



Aretxabaletako campusean egindako Onarpen proba etorritako ikasle gaiak.

